

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5552

AGINDUA, 2016ko abenduaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak, 2016ko abenduaren 2an egindako bilkuran, dagokion proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari eta teknikari, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 6a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2016ko abenduaren 27a, asteartea

ERANSKINA
ONARTUTAKO ESKAERAK

Abizenak, izena	Espediente zk.	Modalitatea	Argibideak
Arpón Bikandi, Asier	485/16/D	Patinajea	Kirolaria
De Velasco Vázquez, Xabier	475/16/D	Piraguismoa	Kirolaria
Elosegi Alkain, Ander	483/16/D	Piraguismoa	Kirolaria
Fernandez Compadre, Telmo	491/16D	Piraguismoa	Kirolaria
García Pereiro, Asier	488/16/D	Saskibaloï egokitua	Kirolaria
Genua Sistiaga, Igor	490/16/D	Errugbia	Kirolaria
Gorospe Guridi, Xabier	493/16/D	Golfa	Kirolaria
Gorrotxategi Susperregi, Aitor	479/16/D	Piraguismoa	Kirolaria
Hernandez Serrador, Ainhoa	487/16/D	Eskubaloï	Kirolaria
Moreno Fernández, Arantza	494/16/D	Atletismoa	Kirolaria
Nieto Marcos, Asier	477/16/D	Eskubaloï	Kirolaria
Peña Arriola, Iñigo	486/16/D	Piraguismoa	Kirolaria
Rivero Fernández, Higinio	484/16/D	Piraguismo egokitua	Kirolaria
Santesteban Gonzalez, Ane	489/16/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Tobalina Aspirez, Carlos	482/16/D	Atletismoa	Kirolaria
Libano Salas, Iker-Ekaitz	80/16/T	Piraguismo egokitua	Teknikaria